

Intxaurreondo



# Larrotxeneko bideo-begia

**Irutxulo**

**h**ilaren 11tik 15era V. Bideo Mostra egingo da kultur etxean. Urtero bezala, hamaika estilotako lanak emango dira.

Lehen emanaldia hilaren 11n izango da, "El grito del sur. Casas viejas" izeneko bideoarekin. Egilea Basilio Martin Patino da, eta bideoa "Andalucía. Un siglo de fascinación" sailaren barruan egin da Canal Sur telebistaren laguntzaz.

Hilaren 12an, Madrilgo Zine Eskolan egindako lanak pantailaratuko dira. Aurkezle lanetan Fernando Mendez Leite ariko da.

Hilaren 13an "Huellas de un espíritu" emango da. Carlos F. Herederok egindako dokumental honen gai nagusia "El espíritu de la colmena" filme ezaguna da. Filmea 1972an errodatu zuen Victor Erizek. Aipatu emanaldi guztiak iluntzeko 20.15etan izango dira.

Datorren astebukaerako

egitaraua ere interesgarria da. Hilaren 14an, "Panorama" sailean, estatu espainiarrean egindako ikusentzuzkoen aukeraketa bat emango da. Lan hauetako batzuk ditugu "Vicent" (Iñigo Kintana), "Exterior noche" (Jose Maria Gil), "Tres tristes traumas" (Sergio Bajarron), "Te veo siempre" (Leire Apellaniz), eta "Con los ojos cerrados" (David Cuesta). Bestalde, euskarazko bi lan pantailaratuko dira: "Pago artean" (Txetxo Lijo) eta "Nola esan" (Iñigo Kintana).

Hilaren 15ean, berriz, iluntzeko 20.15etan, "Imagina 2000" jaialdiari buruzko programa berezia eskainiko da. Gauerdian "Zine arraro, ilun eta bortitzenaren gaua" egingo da, eta bertan fantasiazko eta beldurrezko zortzi laburmetraia emango dira. Horietatik, nabarmentzekoak dira Iñaki Beraetxe aktore donostiar ezagunak zuzendutako "Zerri-hanka", eta Tinieblas Gonzalez gasteiztarraren "Ambiente cadaver".

# IRUTXULO

Donostiako asteakaria

## eta

# GAZTETXULO

Donostiako gazteen hitabetea

zure etxean jaso nahi badituzu...

deitu orain

# 943-429593

telefono zenbakira

**Postaz bidali**

Izen-deiturak: .....

Telefona: .....

Helbidea: .....

Kodea: ..... Herria: .....

- Gutxieneko kuota: 2.500 pezeta / BEZa bane
- Kuota berezia: 5.000 pezeta
- Borondatezko kuota: (zuk erabaki kopurua)
- BAGERAKideen kuota: 1.500 pezeta / BEZa bat.

**Kontu zenbakia:**           

Entitate                      Sukurtsala

                    

K.D.                                      Kontu zenbakia

Helbide elektronikoa: [txulo@euskalnet.net](mailto:txulo@euskalnet.net)

**IRUTXULO, San Joan kalea 14, 20003, DONOSTIA**  
Tfnoa: 943-42.68.07 • Faxa: 943-43.11.90